


Aseguru etikoak ekonomia sozial eta solidariorako

TIRA!





**Aseguru etikoak, ekonomia
solidarioaren funtsezko
tresna**

Aseguruak etikoak ere izan daitezke

Asegurua pertsonen eta komunitateen zerbitzura dagoen tresna kolektibo izan dadila defendatzen dugu.

Aseguruaren jatorrizko zentzua berreskuratzeko lan egiten dugu, hauetan oinarrituta:

Mutualitatea: komunitatearen zerbitzura dagoen tresna kolektiboa.


Ekitatea: pertsona guztiek daukate behar bezala babestuta egoteko eskubidea

Gardentasuna: berdinen arteko kontratua, gardena, gehiegikeriarik gabekoa eta bidegabekoak, diskriminatzaileak edo zalantzarriak diren klausularik gabekoa

REAS Red de Redes eta CAES, ekonomia solidariorako aliantza

2017az geroztik, **REAS Red de Redes** sareak eta **CAES** kooperatibak **elkarlan hitzarmena** dugu ekonomia sozial eta solidarioko pertsonen, entitateen eta erakundeen artean aseguru etiko eta solidarioak sustatzeko. Hitzarmen hau ekonomia solidarioko sare desberdinetara lekualdatzen da.

Gure helburua irizpide etikoekin kudeatzen diren aseguruak sustatzea da, baita horiek **finantza etikoen** sistemako beste tresna gisa kokatzea, **gizarte eraldaketaren** eta **merkatu sozialen** eraketaren zerbitzura.



REAS Red de Redes eta CAES, ekonomia solidariorako aliantza

CAES proiektua bi aseguru artekaritzak osatzen dute: **Arç Cooperativa** eta **SERYES**, eta bi-biek Finantza Etikoen Behatokiak ematen duen **EthSI zigiluaren** ziurtagiria dute. Zigilu honek aseguru-esparruaren **gardentasuna** eta **jardunbide egokiak** egiaztatzen ditu.



2

**Ekonomia solidarioko entitate,
erakunde eta pertsonentzako
aseguruak**

CAES ekonomia solidarioko sareei lotu zaienez eta haiekin parte hartzen duenez gero, zuzenean ezagutzen ditugu **ESSko entitateen, erakundeen eta kooperatiben beharrak**, baita sareko bazkideenak ere.

Horri esker, gure aseguru-produktuak zuen beharrak asetzeko **zehazki diseinatu** dira.




ESSko enpresentzako eta erakundeetarako gure aseguruak

- Erantzukizun zibila
- Kalte materialak
- Kalte pertsonalak (hitzarmen-istripuak, langileen istripuak, boluntarioen istripuak)
- Errektore kontseiluko edo zuzendari-batzordeko kideen erantzukizuna
- Zibersegurtasuna
- Energia berriztagarriko instalazioak
- Mugikortasun jasangarria
- Ingurumen-erantzukizun zibila



ESSko pertonentzako gure aseguruak

- Etxea
- Autoa
- Bizikleta
- Bidaia-laguntza
- Bizitza
- Osasuna
- Etxe-animaliak





Jarri harremanetan gurekin

CAES kooperatiban REAS Red de Redes sarearen lurralde konfederal osoan lan egiten dugu SERYES eta Arç Cooperativa aseguru artekaritzen bitartez.

Gure aseguruari buruzko **informazio gehiago** lortu nahi baduzue edo zuzenean produkturen bat **kontratatu** nahi baduzue, zuen tokiko sareko erreferentziatzko artekaritzarekin harremanetan jar zaitezket




SERYES

contacto@seryes.com
915 230 354



Arç Cooperativa

jgomez@arc.coop
934 23 46 02 · Ext. 2130



Zuzenean CAES kooperatibarekin harremanetan jar zaitezke ere **info@caes.coop** helbide elektronikoaren bidez, eta zuen lurraldeari dagokion artekaritzara bideratuko zaizue.

